

ADINGABEENTZAKO AURREZKI ERREGULARRAREN OPARIA LABORAL Kutxaren 2026ko KANPAINA

1.- Sustapenaren helburua

LABORAL Kutxak **Aurrezki Erregularra** gordailuaren kontratazioa sustatu nahi du. Horretarako, opari bat eskaintzen die gordailua kontratatzen dutenei.

2.- Sustapenaren onuradunak

13 urtetik beherako bezeroak, baldin eta haien legezko ordezkariak (adin nagusiko pertsona fisikoak) adingabeon izenean **Aurrezki Erregularra** gordailua kontratatzen badute.

Aurrezki Erregularra gordailua kontratatzen denean, **Aurrezki Erregularra** gordailuaren liburuxkan 0 eta 12 urte bitartekoentzat jasotako bi oparietatik bat aukeratu ahal izango da:

- **Itsulapiko kutzazaina**
- **Jarduera-eskumuturrekoa**
- **Sandwich-ontzia + botila**

Izakinak amaitu arte (itsulapiko kutzazaina: 3.000 ale; botila + sandwich-ontzia: 1.200 ale; erloju beltza: 150 ale; erloju urdina: 150 ale). LABORAL Kutxak eskubidea izango du produktu horien ordezkari antzeko ezaugarriak dituzten beste batzuk emateko.

3.- Esparrua

Eremu geografikoak Espainia osoa hartzen du.

4.- Sustapenaren epeak

Indarraldia: **2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte (biak barne).**

5.- Datuen babesa

Datu pertsonalen tratamenduaz LABORAL Kutxa arduratuko da (IFZ: F75076935; egoitza soziala: Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua zk.g., 20500 Arrasate, Gipuzkoa).

LABORAL Kutxak oparia emateko beharrezkoak diren gestioak egiteko tratatu ahal izango ditu harremanetarako datu pertsonalak, eta kontratua gauzatzeko izango da horretarako legitimazio-oinarria.

Zure datuak ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, eramateko, aurka egiteko eta baimena atzera botatzeko eskubideez baliatzeko, mezu elektronikoko bat bidal dezakezu helbide honetara:

protecciondatos@laboralkutxa.com. Halaber, esteka honetan irakur dezakezu Bezeroen Datu Pertsonalak Babesteko Politika osoa: **www.laboralkutxa.com/eu/datuen-babesa**.

6.- Oinarriak onartzea

Sustapenean parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea. Beraz, parte-hartzaileak adierazten badu oinarri hauek guztiak edo batzuk ez dituela onartzen, zozketatik kanpo geratuko da. Ondorioz, LABORAL Kutxak ez du parte-hartzaile horrekin hartutako obligazioa bete beharko. Oinarri hauek **www.laboralkutxa.eus** webgunean kontsulta daitezke.

7.- Legeria aplikagarria eta jurisdikzioa

Lege-oinarri hauek Espainiako legearen arabera arautuko dira. Bergarako epaitegi eta auzitegiek izango dute eskumena oinarri hauen baliozkotasunaren, interpretazioaren edo betetzearen inguruan sortzen diren erreklamazioak edo desadostasunak ebazteko.

8.- Fiskalitatea

LABORAL Kutxa behartuta dago gauzazko kapital higigarriaren etekinei dagokien atxikipen fiskala egitera, PFEZri buruzko erregelamenduan jasotakoa betez.